

IRUNGO UDALEKO UDALBATZARENTZAKO MOZIO PROPOSAMENA

Txingudiko Elkarte Feministak (IFZ: G01833979),

Nicolás Guerendiáin Irungo Errepublikarrak elkarteak (IFZ: G20894994),

Gaurko Andreak Berdintasunaren aldeko Elkarteak (IFZ: G20981288),

Emakumea eta Zinea Kultur Elkarteak (IFZ: G20688347) eta

Bidasoa aldeko Elkarte Feministak (IFZ: G75107599),

2021eko azaroaren 27an Almudena Grandes idazlea hil zela-eta, Irungo Udaleko Udaltzari proposatzen diote hirian haren memoria ohoratzeko mozio bat eztabaidatu eta onar dezan, eta, horrela, Irungo toki esanguratsu batean kale edo plaza bat eskain diezaion, pertsonaren, haren obraren eta bizitza osoan defendatu zituen balio zibikoen omenez.

MOZIOA

KONTUAN IZANIK Almudena Grandesek berak eta haren obrak balio zibiko, indibidual eta kolektibo batzuk gorpuzten dituztela, oso bereziki gorpuztu ere, proposamen hau sinatzen dugun elkarteok ere baditugunak eta gure hiriak historian ordezkatu dituen balioekin lotuta daudenak,

KONTUAN IZANIK Almudena Grandesek harro aldarrikatu zuela legediaren eta balio errepublikano eta feministen alde borroka egin zutenen memoria historikoa, gizarte justu eta solidarioagoa eraikitzeko etengabeko konpromiso politikoa izan zuela, emakumeek historian eta gizartean betetako funtsezko eginkizuna aldarrikatu zuela eta modez eta interes pertsonalez harago koherentzia ideologikoz jokatu zuela,

KONTUAN IZANIK balio horiek guztiak bereziki beharrezkoak direla gaur egun, populismoen eta eskuin muturraren ondorioz finkatutzat genituen hainbat eskubide indibidual eta lorpen sozial atzera egiteko arriskuan dauden honetan,

KONTUAN IZANIK milaka eta milaka irakurlek asko ikasi eta gozatu dugula Almudena Grandesen liburuekin eta inguruko norbait hil balitzaigu bezala sentitu dugula haren heriotza, egindako esker on eta maitasun adierazpen guztiek adierazten dutenez,

KONTUAN IZANIK Almudena Grandesen jaioterriko eskuineko eta eskuin muturreko arduradun politikoei hari zein haren familiari eraso egin dietela eta gaizki tratatu dituztela,

ERABAKI HAU ONARTZEKO ESKATZEN ZAIO IRUNGO UDALEKO UDALBATZARI:

“Elkarteek aurkeztutako mozioa ikusita, hiriko toki esanguratsu batean kale edo plaza bat eskainiko zaio Almudena Grandes idazleari, pertsonaren beraren eta haren obraren balioen omenez”.

Irunen, 2022ko otsailaren 12an